

ARAUDIA 2009

7 ko FUTBOLA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO XXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** antolatuko ditu. Gasteizko, Betoñoko futbol zelaian, 2009ko maiatzaren 30 eta 31 eta ekainaren 6an.

1. JOKO SISTEMA

Kategoria: neska infantilak, 1995 eta 1996 urteetan jaiok.

2. TALDEEN OSAERA

Gehienez 15 jokalaria izango dituzte taldeek, aktan jasotakoak, eta horietaz gain ordezkari bat eta entrenatzailea ere izango dituzte. Bost jokalaria egon behar dira, gutxienez, partidari hasiera eman ahal izateko; halere geroago etortzen diren gainontzeko jokalariek jokatzeko aukera izango dute. Talderen bat 5 jokalaria baino gutxiagorekin geratzen denean partida bukatutzat joko da.

Taldeek jantzien kolorearen berri emango diote antolaketari izena ematerakoan, bi talde ez daitezen bat etorri partida egunean.

3. JOKOAREN IRAUPENA ETA ALDAKETAK.

35 minutuko bi alditan banaturik dago partida eta 10 minutuko atsedenaldia du. Partidan zehar ez dago aldaketa-mugarik. Epailea aurretik ohartaraziz gero, zelaitik irten den jokalaria bat partidako beste edozein momentutan berriro itzuli daiteke

zelaira, aldatutako jokalariai zelaia uzten duenean. Jokalariai zelaia erdigunetik sartuko edo irtengo dira. Atezainak beste edozein jokalariri utzi diezaioke bere postua, epailea aurretik jakinaren gain jarri gero; atezainaren elastikoa jantziko du jokalaria horrek. Jokalaria batek txartel gorria jaso gero, ezingo du jokatu partida amaitzeko geratzen den denboran; kanporatzea partidako azken hamar minutuetan gertatu ezean, horren ordez beste jokalaria bat sartuko da zelaigunera.

4. TXARTEL HORIA ETA TXARTEL GORRIA.

Jokalariai jokabide ez zuzena edo ez duina falta arintzat jotzen badu epaileak, txartel horia erakutsiko dio eta zelaitik botako du denbora baterako (bi minuturako). Behin bi minutuak igaro ondoren, jokalaria hori zelaia itzuli daiteke epaileak baimena ematen dionean.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio eta zelaitik botako du jokalaria honako kasu hauetan: bere ustez, jokalariai jokaera bortitza duenean; joko zakar larriaren errudun denean; hizkera zikina edo iraingarria erabiltzen duenean; edo ohartarazpen bat jaso duen edo aldi baterako kanporatua izan den jokalariai jokaera ezegokia izaten jarraitzen duenean.

5. JOKOZ KANPO.

Jokalaria bat jokoz kanpoko posizioan egongo da, aurkako taldearen 13 metroko gune barruan egonda ateko murratik baloia baino gertuago badago, jokalaria eta aipaturiko murraren artean aurkako taldeko bi jokalaria edo gehiago egon ezean.

6. FALTAK NOLA GAUZATU. ZIGOR JAURTIKETA.

13 metroko murratik kanpo adierazitako faltak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Falta horiek zuzenean jaurtiko dira egindako leku beretik, zuzenean puntu bat lortzeko aukera eman ez taldeari. Aurkako jokalariaiek bertatik 6 metroko distantzia minimora egon beharko dute.

Jokalariak bere taldearen 13 metroko gune barruan falta eginez gero, epaileak penaltia adieraziko du eta ekintza horren larritasunaren arabera zigortuko du jokalaria, futbol hamaika jokoko arauak aplikatuz.

7. ARAUZKO DENBORA IGAROTZEAN BERDINKETA EGONEZ GERO.

Penalti-puntutik bost jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalariak txandakatuz. Bost jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegin eta besteak sartu arte.

8. BALOIA

4 zenbakikoa izango da baloia, honako ezaugarri hauek dituena: 62tik 66 zentimetrora bitarteko zirkunferentzia eta 340tik 390 gramora bitarteko pisua. Berotzeko baloiak taldeak ekarri beharko dituzte.

9. ZELAIA

Belar artifizialezkoa izango da zelaia.

10. JOKO ARAU OSAGARRIAK.

Aipaturiko arauak aurreikusten ez dituzten egoeretan futbol 11ko arauak aplikatu.

11. KIROL SARIAK.

Lehenengo hiru sailkatuentzako garaikurra.

12. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo behar da. Honek eman beharreko gainontzeko pausak bideratuko ditu.

13. AZKEN OHARRA.

Araudi honen barruan aurreikusirik ez dauden egoerentarako honako hauek izango dira kontutan:

- a) Ekainaren 11ko 14/1998 Euskadiko kirol legea.
- b) Euskadiko Eskola Jokoak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren 1985eko uztailaren 2ko agindua.
- c) Eskola Kirolen lehiaketen diziplina-araubideari buruz Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailak 1985eko uztailaren 29an argitaratu zuen agindua.
- d) Euskadiko Eskola Jokoak arautzen dituen Kultura Sailaren 1986ko maiatzaren 20ko agindua, partzialki 85/07/02ko agindua aldatzen duena.
- e) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 dekretua.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.